



NAFARROAKO
Aldizkari Ofiziala

2020. urtea

63. zenbakia

Asteartea, martxoaren 24a

A U R R I A L D E A

ORRIALDEA

ORRIALDEA

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

1.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak

- 133E/2020 EBAZPENA, otsailaren 19koa, Osasun-bidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, fakultatibo asistentzialen lanbide karreraren Ebaluazio Batzordearen osaera aldatzen duena.

1.4. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BEKAK

- 6E/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 3koa, Kultura eta Kiroleko kontseilariak emana. Honen bidez dirulaguntzak banakako ebaluazio araubidean emateko deialdi bat onesten da nazioarteko, Espainiako edo autonomia erkidegoen arteko lehiaketa ofizial ez-profesionalen eta beste deialdi batzuetan jaso gabeko lehiaketa ofizialen 2019ko urriaren 1etik 2020ko irailaren 30era bitartean parte hartzen du-

ten kirol klubentzat eta kirol klub filialentzat. DDBN identifikazioa: 498447.

3902

1.7. BESTELAKOAK

- 67/2020 EBAZPENA, martxoaren 6koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitatean sartzeko Batxilergoko ebaluazioa egiteko jarraibideak 2019-2020 ikasturterako.
- JENDAURREKO INFORMAZIOA, nodoko solaskide bakarra (Muru Artederreta 400 kV) izendatzeari buruzkoa.

3907

3908

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

3910

- DONEZTEBE..... 3910
- IZARBEIBARKO ZERBITZU ADMINISTRATIBOEN MANKOMUNITATEA..... 3910

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

1.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak

133E/2020 EBAZPENEA, otsailaren 19koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, fakultatibo asistentzialen lanbide karreraren Ebaluazio Batzordearen osaera aldatzen duena.

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboan lanbide karreraren sistema arautu zen. Ondoren, lege hori garatzeko arauak eman zituen abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuaren bidez, lanbide karreraren ebaluazio batzordeen osaera zehazteaz gain, batzorde horietako kideak izendatzeko bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 26ko 743E/2019 Ebazpenaren bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatibo asistentzialen lanbide karreraren ebaluazio batzordearen osaera aldatu zen.

Aipatu abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuaren 15. artikulua ezartzen duenez, zortzi kidek osatuko dituzte ebaluazio batzordeak: horietako lau Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko izendatuko ditu, bat Langileen Batzordeak, eta gainontzeko hirurak dagokion batzorde tekniko asistentzialak.

Ebaluazio batzordeetako kideek arrazoi hauengatik utziko dute kargua: agintaldia bukatzea izendapenetik lau urte igarotzeagatik, karguari uko egitea, erretiroa hartzea edo dagokion batzordearen esparruan aritzeari uztea.

Batzordeko idazkaria izateari uko egin dio María Begoña López Aranguen andreak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko izendatu zuen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 26ko 743E/2019 Ebazpenaren bidez. Beraz, bidezkoa da hura ordeztzea.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Ana Rita Garrido Jordán andrea proposatu du batzordeko idazkari izateko.

Irailaren 3ko 171/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Estatutuek ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. María Begoña López Aranguen andrea fakultatibo asistentzialen lanbide karreraren ebaluazio batzordeko idazkari kargutik kentzea.

2. Ana Rita Garrido Jordán andrea batzordeko idazkari izendatzea.

Horrenbestez, honako hau da fakultatibo asistentzialen lanbide karreraren Ebaluazio Batzordearen osaera:

–Batzordeburua: –Gabriel Izpura Liberal jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 27ko 882E/2016 Ebazpenaren bidez izendatua.

Batzordekideak:

–Fernando Olaz Preciado jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen apirilaren 27ko 882E/2016 Ebazpenaren bidez izendatua.

–Amparo Larequi García andrea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 26ko 743E/2019 Ebazpenaren bidez.

–Aurelia Mena Mur andrea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 26ko 743E/2019 Ebazpenaren bidez izendatua, Nafarroako Ospitaleguneko Batzorde Tekniko Asistentzialak proposatuta.

–Jesús Elizalde Eguinoa jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 26ko 743E/2019 Ebazpenaren bidez izendatua, Nafarroako Ospitaleguneko Batzorde Tekniko Asistentzialak proposatuta.

–M.^a Antonia Zapatería García andrea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 26ko 753E/2019 Ebazpenaren bidez izendatua, Tuterako Reina Sofia ospitaleko Batzorde Tekniko Asistentzialak proposatuta.

–Ángel Hernández Galán jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 26ko 743E/2019 Ebaz-

penaren bidez izendatua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Langileen Batzordeak proposatuta.

–Idazkaria: Ana Rita Garrido Jordán andrea.

3. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4. Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea, eta ohartaraztea ez duela administrazio bidea amaitzen, eta haren kontra gora jotzeko errekurtsoa aurkez daitekeela, Osasuneko kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita. Hori guztia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 126.1.c) eta 126.3 artikuluekin bat, eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren abuztuaren 23ko 118/2019 Foru Aginduaren bidez egindako eskumenera eskuordetzea erabiliz.

Iruñean, 2020ko otsailaren 19an.–Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea, José Ramón Mora Martínez.

F2002881

1.4. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BEKAK

6E/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 3koa, Kultura eta Kiroleko kontseilariak emana. Honen bidez dirulaguntzak banakako ebaluazio araubidean emateko deialdi bat onesten da nazioarteko, Espainiako edo autonomia erkidegoen arteko lehiaketa ofizial ez-profesionalan eta beste deialdi batzuetan jaso gabeko lehiaketa ofizialetan 2019ko urriaren 1etik 2020ko irailaren 30era bitartean parte hartzen duten kirol klubentzat eta kirol klub filialentzat. DDBN identifikazioa: 498447.

Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legearen arabera kirola herritarren eskubidea da, eta interes publikoko gizarte jarduera bat, laguntzen duena pertsonaren prestakuntza eta garapen integrala bultzatzen eta bizi kalitatea eta norbanakoen eta kolektiboaren ongizatea hobetzen. Gainera, elkarbizitza eta gizartearen kohesioa eta barne-lotura errazten ditu, osasun publikoa hobetzen du, eta garapen ekonomikoa sustatzen.

Foru legeak modu berri batean jorratzen du goi mailako kirol jarduera, oinarriko kirol praktikarako pizgarri gisa hartzen baita. Horrez gain, Foru Komunitatea estatuan eta nazioartean ordezkatu eta sustatzen laguntzen du.

Egun Nafarroan indarra duen Kirol Plan Estrategikoan, Gobernuak 2009ko irailaren 7ko Erabakian onetsi, eta Nafarroako Parlamentuak 2010ean berretsi zuen horretan, Kirolari buruzko Legean aipatzen diren kirolaren berezko balioak jasotzen dira, heziketari eta bizi kalitateari dagokienez, eta helburu nagusi hauek azpimarratzen dira: Nafarroaren irudiaren proiektzioa sustatzea eta kirol ekintzan parte hartzen duten eragile guztientzako jarduketara esparru bat sortzea.

Bestalde, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntza guztien araubide juridiko orokorra Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarrita dago, eta bertan finkatzen dira printzipio orokorrak, kontzeptuak, irizpideak, eskumenak, eginbeharrak eta erantzukizunak, baita dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko bidea ere.

Gobernuak 2020ko urtarrilaren 10ean hartutako 32131 Erabakiaren bidez, Kultura eta Kiroleko kontseilariari baimena eman zitzaion dirulaguntzak banakako ebaluazio araubidean emateko deialdi bat tramitatzea, nazioarteko, Espainiako edo autonomia erkidegoen arteko lehiaketa ofizial ez-profesionalan eta beste deialdi batzuetan jaso gabeko liga erregular ofizialetan 2019ko urriaren 1etik 2020ko irailaren 30era bitartean parte hartzen duten kirol klubentzat eta kirol klub filialentzat.

Klubek aipatu lehiaketetan parte hartzeagatik izaten dituzten gastuak zati batean ordaintzeko laguntza emateko tresna bat da 2020rako deialdi hau.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen bidez eta Kultura eta Kirol Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 273/2019 Foru Dekretuan esleitu zaizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

1. Dirulaguntzak banakako ebaluazio araubidean emateko 2020ko deialdiaren oinarri arautzaileak onestea nazioarteko, Espainiako eta auto-

nomia erkidegoen arteko lehiaketa ofizial ez-profesionalen eta beste deialdi batzuetan jaso gabeko lehiaketa ofizialetan 2019ko urriaren 1etik 2020ko irailaren 30era bitartean parte hartzen duten kirol klubentzat eta kirol klub filialentzat. Orobat, foru agindu honetako eranskinak onesten dira, kontuan izanik laguntza horiek emateko beharrezkoa izanen dela diru-izendapena izatea aurrekontuan.

2. Deialdi hau aurrera eramateko, 460.000,00 euroko gastua baimentzea. Diru hori ordainduko da 2020ra luzatutako 2019ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Kirol entitateak, hitzarmenak eta laguntzak" izeneko A50002 A5120 4819 336109 partidaren kargura.

3. Foru agindu hau eta 1., 2. eta 3. eranskinak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Aipatu agiri eta gainerako eranskinak interesdunen eskura egonen dira Nafarroako Gobernuaren web-orrian eta Nafarroako Kirolaren Institutuaren bulegoetan.

4. Foru agindu honen kontra gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, Nafarroako Gobernuari zuzendua, hilabeteko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz.

5. Foru agindu hau Kirol Zuzendariordetzari, Administrazio eta Kudeaketa Atalari eta Gai Ekonomiko-Administratiboak eta Prozedurak Kudeatzeko Bulegoari igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2020ko martxoaren 3an.—Kultura eta Kiroleko kontseilaria, Rebeca Esnaola Bermejo.

1. ERANSKINA

Oinarri arautzaileak

1.—Xedea.

1.1. Oinarri hauek helburu dute dirulaguntzak banakako ebaluazio araubidean emateko prozedura ezartzea nazioarteko, Espainiako eta autonomia erkidegoen arteko lehiaketa ofizial ez-profesionalen eta beste deialdi batzuetan jaso gabeko lehiaketa ofizialetan 2019ko urriaren 1etik 2020ko irailaren 30era bitartean parte hartzen duten kirol klubentzat eta kirol klub filialentzat. Horretarako, eranskinen baldintzak bete behar dituzte eta kreditu erabilgarria egon behar da aurrekontuan.

Modalitatearen egutegia 2020ko irailaren 30etik aurrera bukatzen denean, egun hori arte egiten diren jardunaldi edo lehiaketetarako soilik eska daiteke dirulaguntza. Egun horretatik aurrera egiten direnak 2021eko deialdian hartuko dira kontuan, hala balegokie.

1.2. Dirulaguntza horiek emanda, xedea da klub horiek laguntza nazioarteko, Espainiako eta autonomia erkidegoen arteko lehiaketetan parte hartzen dutenean, lehiaketa horietan parte hartzeko joan-etorriek sortzen dituzten gastuak partez ordainduz. Laguntzak onura publikokokak dira, Nafarroako bizilagunen kirol jarduera sustatzen eta zabaltzen laguntzen dutelako.

2.—Onuradunak eta betebeharrak.

2.1. Deialdi honetan parte har dezakete Nafarroako Kirol Entitateen Erregistroan inskribaturik dauden irabazi-asmorik gabeko kirol klubek eta kirol klub filialek, betiere kasuan kasuko Nafarroako kirol federazioei atxikita badaude eta 2019ko urriaren 1etik 2020ko irailaren 30era bitartean parte hartzen badute oinarri hauetako hurrengo klausulan zehazten diren lehiaketetan.

Nafarroan modalitatearen gaineko kirol federaziorik ez bada, klubek dagokion Espainiako federazioarekin tramitatuko dute lizentzia zuzenean edo, bestela, modalitateko beste autonomia erkidego bateko edozein federazioaren bidez.

2.2. Orobat, nazioarteko lehiaketen kasuan, Espainiako Federazioaren edo egoki den nazioarteko federazioaren bidez frogatu behar dute 3.1.d) oinarrian agertzen diren lehiaketetako bat dela.

2.3. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13.2 artikuluan aipatutako egoeretako batean dauden kirol klubak eta kirol klub filialak ezin izanen dira deialdi honen xede diren dirulaguntzen onuradun izan.

2.4. Horrez gain, ez dituzte deialdi honen xede diren dirulaguntzak jasoko sexuan edo generoan oinarritutako diskriminazioa dakarten lan arloko jardunbideak gauzatu edo toleratzeagatik zehapena edo zigorra jaso duten kirol klubek eta kirol klub filialek, zigor edo zehapen horiek administrazio ebazpen irmoz edo epai irmoz ezarri badira.

2.5. Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo haren erakunde autonomoen aldeko zorrak ordaintzeko betebeharrak egunean izan beharko dituzte.

3.—Lehiaketa diruz lagungarriak.

3.1. A Deialdi honen ondorioetarako, diruz lagungarriak izanen dira ondoren azaltzen diren lehiaketak:

a) Beste deialdi batzuetan jaso gabeko Espainiako txapelketa ofizialak: Espainiako txapelketa; Erregearen edo Erreginaren kopak; "play-off" gisako partidak, Espainiako kirol federazioek antolatutak; eta Kirolaren Kontseilu Nagusiak antolatzen dituen eskola-umeentzako Espainiako txapelketa, beste deialdi batzuetan jaso gabek.

b) Sektoreko faseak edo autonomia erkidegoen arteko ligak, a) atalean adierazitako Espainiako lehiaketa ofizialetan sailkatzeko bide badira.

c) Nafarroarekin mugakide diren autonomia erkidegoetako beste lehiaketa arautu batzuk, betiere Espainiako kasuan kasuko federazioaren edo autonomia erkidego horien egutegi ofizialean badaude.

d) Ondoren azaltzen diren nazioarteko lehiaketak, baldin kategorია absolutuak badira eta parte-hartzaileak goi mailako kirolarien zerrendan agertzen badira:

—Munduko edo Europako Txapelketa.

—Munduko edo Europako Kopa.

—Horietarako eta 2020ko Olinpiar Jokoetarako sailkatzeko lehiaketak.

3.2. Ez dira diruz lagungarriak izanen aurreko atalean agertzen ez diren lehiaketak, eta berariaz hauek:

a) Beteranoentzako edo master kategoriako lehiaketak, galarazi gabe kirolari beterrano edo master kategoriako batek dirulaguntza jasotzea aurreko atalean agertzen diren lehiaketetan kategoría senior edo absolutuan parte hartzeagatik.

b) 2008. urtean eta hurrengoetan jaiotakoentzako lehiaketak, hau da, eskuarki haur kategoría izena duenetik beheragoko kategoriak.

c) Nafarroan egindako txapelketak.

d) Nazioarteko lehiaketak, adinaren arabera kategoriaren.

e) Nazioarteko lehiaketak, Nafarroako edo Espainiako selekzio batean parte hartuz.

f) "Puntuak emate hutseko" nazioarteko lehiaketak, "sailkapen lehiaketak" izan ezean.

g) Apustu enpresek (apustu makinaren operadore diren enpresak barne) guztiz edo zati batean finantzatzen eta/edo babesten dituzten klubak. Halaber, deialdi honetatik bazter uzten dira halako enpresen edozein publizitate mota duten klubak, dela jarduera egin behar den instalazioetan, dela parte-hartzaileen ekipamenduetan eta materialean.

3.3. Laguntza hauek banakako ebaluazioaren bidez emanen dira, eta eskaerak aurkezten diren hurrenkeran tramitatu eta ebartziko dira espedienteak, aurrekontuan kreditua dagoen artean.

3.4. Espainiako lehiaketei eta autonomia erkidegoen arteko dagokienez, joan-etorrien, ostatuaren eta mantenuaren gastuak diruz lagunduko dira, modulu aldakor baten arabera kalkulatu (2. eranskina).

3.5. Nazioarteko lehiaketen kasuan, dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, bakar-bakarrik kontuan hartuko dira inskripzio, joan-etorri eta ostatu eta mantenuko egindako gastuen zenbatekoak, 3. eranskinen mugekin.

4.—Dirulaguntzaren zenbatekoa.

4.1. Deialdi honetarako onetsitako gastua 460.000,00 eurokoa da, eta 2020ra luzatutako Nafarroako 2019ko Aurrekontu Orokorretako "Kirol entitateak, hitzarmenak eta laguntzak" izeneko A50002 A5120 4819 336109 partidaren kargura ordainduko da.

2020ko ekitaldian partida horretan dirurik baldin badago, deialdi honetan aurreikusitako gastua handitzen ahalko da 75.000,00 eurotan gehienez.

4.2. Dirulaguntzaren zenbatekoa deialdi honetako 2. eta 3. eranskinetan deskribatu eta garatzen diren aplikazio irizpideei eta modulu aldakorrei jarraituz zehaztuko da, kasuan kasuko lehiaketaren arabera, eta behar adinako kreditu egokia izanez gero.

5.—Eskaeren aurkezpena, dokumentazioa eta epeak.

5.1. Eskaerak Nafarroako Kirolaren Institutuari zuzenduko zaizkio, eta telematika bidez aurkeztuko dira nahitaez, Nafarroako Gobernuak Interneten duen Atariko (www.nafarroa.eus) izapideen katalogoan dagokion esteka erabiliz.

Halaber, Nafarroako Kirolaren Institutuaren webgunearen bidez ere aurkez daitezke:

<https://www.deporteyjuventudnavarra.es/es/individualizada>

Eskaera Nafarroako Kirolaren Institutuari zuzenduko zaio, horretarako ezarritako eredu ofizialari jarraikiz. Administrazio Publikoaren Administrazio

Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.8 eta 66.6 artikuluetan xedatutakoarekin bat, Ez aurkeztuzat joko dira laguntzen fitxa dagoen ereduarekin bat ez datozen eskabideak eta, fitxa hori erabiliz, telematikoki aurkezten ez direnak. Horrenbestez, aurkeztuzat jotzen ez direnez, eskabide horiek ezin izanen dira zuzendu.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2020ko urriaren 20an bukatuko.

Txapelketa edo lehiaketa diruz lagungarriak proba, fase edo jardunaldi batzuk baditu (zirkuitu mota), horietarako dirulaguntza eskaera aurkezten ahal da, lehiaketa bukatu ez bada ere.

Modalitatearen egutegia 2020ko irailaren 30etik aurrera bukatzen denean, 2020ko urriaren 1a baino lehen egin edo egiten diren jardunaldi edo lehiaketetarako soilik eska daiteke dirulaguntza. 2020ko irailaren 30etik aurrera egiten diren kirol probak ez dira deialdi honetan sartuko.

5.2. Eskatzaileak eskaera-inprimakiaren eremu guztiak bete beharoko ditu, izandako sarrerak eta egindako gastuak zehaztuz (burutu den jarduerak), edo aurreikusten diren sarrerak eta gastuak (burutu ez den jarduerak).

5.3. Nazioarteko lehiaketetan parte hartzeko, lehiaketa bakoitzeko eskaera bat bete beharko da.

5.4. Eskaera egiten duen entitateak nahiago badu dirulaguntza-eskaera egin jarduerak burutu baino lehen, inprimakia betetzean adierazi beharko du jarduerak "gauzatu gabe", eta zehaztu beharko du "nazionala/autonomikoa" eta "nazioartekoa, olinpikoa edo ez olinpikoa" den.

Kasu honetan, ondoren esaten den dokumentazioa aurkeztuko da:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko ezein ez dela urratzen, onuradun izateko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan ezarritako inolako debekurik.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, agerrarazten duena entitate eskatzailea ez dela betetzen ari zehapen administratibo irmorik edo kondena-epai irmorik edo, halaber, ez dagoela zehapen eta kondena-epai bat bete zain, sexuan edo generoan oinarritutako diskriminazioa dakarten lan arloko jardunbideak gauzatu edo toleratzeagatik.

c) Eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duen egiaztagiria. Ez da beharrezkoa izanen dokumentazio hori aurkeztea NKIri baimena ematen bazaio egiaztapen hori zuzenean egiteko Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean.

d) Lehiaketaren egutegi ofiziala eta araudia, lehiaketa gauzatzeko federazioak ezarritako zenbaterakoak barne (lizentziak, inskripzio-kuotak, arbitrajeak...), Espainiako edo autonomia erkidegoen arteko lehiaketak badira.

e) Inskripzioa eta, behar denean, ordainketa egin izanaren frogagiria. Adierazi beharko da klub eskatzaileko zer kirolari kopuru dagoen, proba noiz eta non izan den, eta lehiaketaren maila edo kategoria. Hala ere, zenbait proba dituzten zirkuitu motako lehiaketetan, parte hartzen den proba bakoitzean inskribatu izanaren frogagiria aurkeztuko da.

f) Kasuan kasuko federazioaren bidez emandako lizentzien zerrenda.

g) Dirulaguntza jaso beharreko jardueraren memoria laburra.

h) Laguntza transferentzia bidez kobratzeko eskabidea (laguntza lehenbiziko aldiz eskatzen bada edo aldaketaren bat izan bada bakarrik).

i) Aurrekoez gain, nazioarteko lehiaketen kasuan, kasuan kasuko federazioaren egiaztagiria, frogatzen duena klub eskatzaileak parte hartzen duen lehiaketa ofiziala dela eta 3.1.d) oinarrian zerrendatzen diren lehiaketetako bat dela.

5.5. Dirulaguntza-eskaera jarduerak "gauzatu" dagoela aurkezten bada, aurreko atalean adierazten den dokumentazioa eta 9. oinarrian zerrendatzen diren frogagiriak aurkeztu beharko dira.

6.–Antolaketa eta instrukzioa.

6.1. Dirulaguntza hauek emateko prozedura antolatu eta tramitzatzeko organo eskuduna NKIko Kirol Zuzendariordeak izanen da.

Eskaerak aurkeztu ahal tramatatu eta ebatziko dira espedienteak, aurrekontuan kreditu nahikoa dagoen bitartean.

Aurkeztutako dokumentazio administratiboa osorik ez badago edo deialdiko betebeharrak betetzen ez badira, interesdunari errekerimendua egiten zaio dokumentazioa osatu edo akatsak zuzendu ditzen 10 egun balioduneko epean, eta, halaber, ohartaraziko zaio, hala egin ezean, bere eskaerari uko egin diola ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluari jarraikiz.

6.2. Organo horrek ahalmena du klub eskatzaileei eskatzeko aurkeztutako dokumentazio teknikoan dagoen informazioa argitu edo handitu dezatela.

6.3. Gaitutako helbide elektronikora eta herritarren karpetera jakinarazpen elektronikoa igorri egiten da dokumentazioa osatu edo zuzentzeko errekerimendua, aurreko paragrafoan ezarri dena.

7.–Laguntza emateko ebazpena.

7.1. NKIko zuzendari kudeatzaileak laguntzak ematearen gaineko ebazpena gehienez hiru hilabeteko epean emanen du, eskaera bakoitza aurkezten denetik aurrera. Epe hori espresuki ebazpenik eman gabe bukatzen bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

Laguntzak onesteko ematen diren ebazpenetan onetsiko da, halaber, laguntzak ordaintzea, betiere eskaerarekin batera 9. oinarrian ezarritako frogagiriak aurkeztu badira eta 11. oinarrian ezartzen diren gardentasun betebeharrak bete badira.

7.2. Dirulaguntza emateko ebazpena interesdun bakoitzari jakinaraziko zaio. Ebazpenak dirulaguntzaren onuradun zerrenda eta ukatutako eskaeren zerrenda jasoko ditu, ukoaren arrazoia barne, jasoko ditu. Orobat, ebazpena www.navarra.es/home_eu/ web-orrian egonen da ikusgai.

7.3. Ekitaldi ekonomiko jakin baten kargura dirulaguntza bat emateak ez du eskubiderik sortzen hurrengo ekitaldi ekonomikoen kargura ere dirulaguntzarik eskuratzeko.

8.–Dirulaguntzaren ordainketa.

Nafarroako Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen ebazpen baten bidez erabakiko da dirulaguntza ordaintzea, diruz laguntzen den jarduerak egiten ondoren, eta onuradunak alde aurretik aurkeztuta hurrengo oinarrian adierazitako frogagiriak; transferentzia bidez ordainduko da bi hilabeteko epean, kasuan kasuko ebazpena jakinarazten denetik hasita, eta, betiere, 2020ko abenduaren 31 baino lehen.

9.–Frogagiriak eta aurkezteko epea.

9.1. Frogagiriak aurkezteko epearen azken eguna:

a) Jarduera (proba edo lehiaketa) egin aurretik aurkezten diren dirulaguntza-eskaeren kasuan, baldin eta jarduerak ekainaren 1a baino lehen egin bada, epearen azken eguna 2020ko ekainaren 20a izanen da.

b) Jarduera (proba edo lehiaketa) egin aurretik aurkezten diren gainerako dirulaguntza-eskaeren kasuan, baldin eta jarduerak 2020ko urriaren 20a baino lehen egin bada, epearen azken eguna 2020ko urriaren 1a izanen da.

c) Jarduera egin ondoren aurkezten diren dirulaguntza-eskaeren kasuan, baldin eta jarduerak 2020ko urriaren 1a baino lehen egiten bada, epearen azken eguna 2020ko urriaren 20a izanen da. Kasu horretan, hurrengo ataletan adierazten diren frogagiriak erantsi beharko zaizkio dirulaguntzaren eskabideari.

9.2. Diruz lagundutako jardueren frogagiriak honela aurkeztuko dira:

a) Nazio mailako edo autonomia erkidegoen arteko jardueren kasuan, dokumentazio hau aurkeztuko da modulua kalkulatzeko:

–Lehiaketen aktak edo emaitzak, edo sailkapena eta parte hartzen duten kirolarien identitatea jasotzen dituen agiria.

Aktetan lehiaketa baten emaitza guztiak agertzen badira, argi eta garbi nabarmendu beharko dira dirulaguntza eskatzen duen klubeko kirolariak.

Espainiako edo autonomia erkidegoen arteko lehiaketen kasuan, kirolariak batera lehiatu badira, adin-taldea bereiziko dira kategorien sailkapenak.

–Kasuan kasuko federazioaren bidez emandako lizentzien zerrenda.

–Egindako jardueraren memoria laburra.

b) Nazioarteko lehiaketak direnean, justifikazio-kontua erabiliko da, eta horretarako honakoa aurkeztu beharko da:

–Diruz lagundutako jarduerak dela-eta ordaindutako gastu guztien zerrenda, zenbakiturik, honako hauek adierazita: hornitzailearen izena, fakturaren zenbakia eta data, zenbatekoa eta kontzeptua.

–Fakturak edo merkataritzako trafikoko frogak balio bera duten agiriak, inskripzio, joan-etorri eta ostatuarengatik sortutako gastuei dagozkienak, eta haien ordainagiriak.

–Jarduerak dela eta, edozein Administrazio Publiko, entitate pribatua edo partikularrek egindako diru-sarrera guztien zerrenda, zenbakituta eta xehakaturik.

10.–Onuradunek bete beharrekoak.

Deialdi honen babesean dirulaguntza jasotzen duten klubek betebeharrak izanen dituzte:

a) Dirulaguntzak eman diren xedeetarako erabiltzea, bete dituztela dokumentu bidez frogatu, eta NKIk egiten dituen egiaztapenak onartu eta erraztea.

b) Jaso duten edo jasotzeko duten beste edozein diru-sarrera, zuzena nahiz zeharkakoa, jakinaraztea 5. eranskinen inprimakia betez. Horrez gain, beste klub batzuekin batera egin dituzten joan-etorriak ere adieraziko dira. Jakinarazpen hori ahal bezain laster egingen da eta, betiere, jasotako dirua zertan erabili den justifikatu baino lehen.

c) Hala badagokie, hornitzaileak efizientzia eta ekonomia irizpideen arabera eta merkatuko prezioetan kontratatu direla frogatzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen eta 28.3 artikuluen arabera. Bete 6. eranskina.

Ematen den dirulaguntza bateragarria izanen da Administrazio berak, beste Administrazio Publiko batzuek, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek edo partikularrek, naziokoek nahiz nazioartekoek, ematen dituzten bestelako dirulaguntzekin. Laguntza hauen zenbatekoak, eta jardueraren ondoriozko beste diru-sarrera batzuek, bakarrik edo denak baturik, ezin izanen dute behin ere gainditu garatu beharreko jardueraren kostua.

d) Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso dela adieraztea jardueren gaineko edonolako publizitatean, klubaren web-orrian, jantzetan eta instalazioetan, NKIk adierazten duen irudi korporatiboa jarritz.

e) Hizkuntza berdinzalea erabiltzea komunikazio, argitalpen, programa eta antzeko guztietan; emakumeenganako diskriminazioa islatzen duen irudi oro saihestea eta berdintasunari, aniztasunari, eginkizunen pluraltasunari eta ardurakidetzari lotutako baloreak sustatzea.

f) Pertsona guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko, kirol klubek euskararen eta gaztelaniaren presentzia bermatzeko dute komunikazio guztietan: paperak, inskripzio-orriak, kartelak, zabalkunderako bitartekoak, megafonia eta publizitateko logotipoak.

g) Erraztasunak ematea NKIri diruz lagundutako lehiaketaren gainean dagozkion kontrol lanak egin ditzan, oinarri hauetan ezarritakoa betetzen ote den egiaztatzeko.

h) Egiaztatu eta kontrolatzeko ahalmenak egoki erabiltzen direla bermatzeko, kontabilitate-liburuak, erregistro diligenziatuak eta bestelako agiriak eduki eta mantendu beharko dira, behar bezala auditatuak, merkataritzari eta sektoreari buruzko legetan xedatu bezala.

i) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35. artikuluan ezarritako kasuetan, hartutako dirulaguntzak itzultzea.

11.–Gardentasun betebeharrak.

Dirulaguntza eman dela jakinarazi eta hilabeteko epean, entitate onuradunek gardentasun betebeharrari buruzko aitortpena aurkeztu beharko dute telematikoki, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Elektronikoen bitartez, eta, hala badagokio, baita eskatzen zaien dokumentazioa ere, irailaren 11ko 59/2013 Foru Dekretuaren 3. eta 4. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, dekretu horretan arautzen baitira Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargurako dirulaguntzen onuradunek dituzten gardentasun betebeharrak.

Aitortpen eredia 4. eranskinean dago, baina Nafarroako Gobernuak Interneten duen Atariko Tramiteen Katalogoko kasuan kasuko fitxaren bitartez kontsultatu, bete eta tramitatzen ahalko dira: www.nafarroa.eus. Fitxa horretan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari Erregistro Orokor Elektronikoen sartzeko esteka bat izanen da.

12.–Ez-betetzeak.

Deialdi honetako oinarrietan ezarritakoa betetzen ez bada, bereziki betebeharren atalean ezarritakoa, datu faltsuak ematen badira edo dirulaguntzaren xedea NKGIren baimenik gabe aldatuz gero, laguntza galduko da, osorik edo partez, eta jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira. Gainera, horrek ekartzen ahalko du aurrerantzean helburu horretarako edo antzekoetarako dirulaguntzaren eskaerarik ez onartzea, deusetan galarazi gabe antolamendu juridikoan aurreikusitako gainerako erantzukizunak.

Onuradunek frogagiriak epez kanpo aurkezten badituzte, bidezkoa izanen da dirulaguntza osorik edo partez galtzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen arabera.

Nolanahi ere, onuradunak betebeharrak ia osorik betetzen dituztenean eta zalantzarik gabe bere konpromisoak betetzeko jarrera frogatzen dituztenean, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionaltasun irizpideari jarraituz zehaztuko da.

13.–Datu pertsonalen babesa.

Deialdi hau tramitatzearen eta kudeatzearen ondorioz sortzen den datu pertsonalen tratamendua Datuak Babesteko EB 2016/679 Erregelamendu Orokorren, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren eta arlo horretan indarrean dagoen gainerako araudiaren mende egingen da.

NKIk web-orrian informazioa dago datu pertsonalen tratamenduari aplikatzen zaion datuak babesteko politikari buruz. (<https://www.deportey-juventudnavarra.es/es/individualizada>).

14.–Errekurtsoak.

13.1. Deialdi honen eta bere oinarrien kontra gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke, Nafarroako Gobernuari zuzendua, hilabeteko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz.

13.2. Orobat, Nafarroako Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen ebazpen bidez foru agindu hau aplikatzeko ematen diren egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke, Kultura eta Kiroleko kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.

15.–Legeria.

Foru agindu honetan ezarrita ez dagoen orotan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen xedatutakoari jarraituko zaio.

2. ERANSKINA

Modulu aldakorrak kalkulatzeko metodoa nazio mailako eta autonomia erkidegoen arteko lehiaketetan

–Aplikatzeko irizpideak:

Kontuan harturik deialdi honen 1. eranskinen 3. oinarri arautzailean deskribatutakoa, hau da, jarduera diruz lagungarrien sailkapena, eranskin honetako modulu aldakorren arabera kalkulatu eta dirulaguntza nazio mailako edo autonomia erkidegoen arteko lehiaketetan parte hartzeagatik, behar den eskaera aurkeztu ondoren.

–Lehiaketetarako modulu aldakorra:

Oro har, ondotik zehazten den modulu aldakorra aplikatuko da, Nafarroatik kanpo joatea ekartzen duen kirol lehiaketa bakoitza bereizita.

1.–Kontuan hartu beharrekoak.

Dirulaguntza kalkulatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Joan-etorrietako distantzia. Hiru distantzia mota bereizten dira:

- Laburrak: Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Burgos, Zaragoza, Huesca, Errioxa eta Soria.

- Ertainak: Albacete, Ávila, Bartzelona, Castelló, Ciudad Real, Cuenca, Girona, Guadalajara, Lleida, León, Madril, Asturias, Palentzia, Salamanca, Cantabria, Segovia, Tarragona, Teruel, Toledo, Valentzia, Valladolid eta Zamora.

- Luzeak: Alacant, Almería, Badajoz, Balearak, Cáceres, Cádiz, Ceuta, Kordoba, Granada, Huelva, Jaén, A Coruña, Kanariak, Lugo, Málaga, Murtzia, Ourense, Pontevedra eta Sevilla.

b) Parte-hartzaile kopurua. Modulua aplikatzeko, honela finkatu da kirolaren eta parte-hartzaile kopuruaren arteko erlazioa:

- Banakako kirolak:

Zenbat probatan parte hartzen den, horren arabera justifikatuko da parte-hartzaileen kopurua.

4 kirolari edo gutxiago joaten diren kasuetan, laguntzaile bat joan dela hartuko da kontuan; 4 baino gehiago badira, bi laguntzaile hartuko dira kontuan. Zerrendan ez dauden kirolak, dagokion aktan inskribatutako pertsonen arabera erabakiko da kirolari kopurua.

- Automobilismoa eta motoziklismoa: joan-etorri bakoitzerako honako hauek hartuko dira kontuan: pilotu bat, teknikari bat eta ibilgailu bat.

- Ziklismoa: 8 ziklistak baino gutxiagok parte hartzen duten joan-etorrietan, bi laguntzaile hartuko dira kontuan. 8 ziklista edo gehiago badira, hiru hartuko dira kontuan.

- Aire kirolak: joan-etorri bakoitzerako honako hauek hartuko dira kontuan: pilotua(k), teknikari bat eta ibilgailu bat. Gainera, proba

osaten duten etapetako bakoitzean egindako kilometrajea hartuko da kontuan.

- Kirol egokituak: joan-etorri bakoitzerako honako hauek hartuko dira kontuan: parte hartzen duten kirolariak eta lehiaketan parte hartzeko behar diren langile laguntzaileak.
- Hipika/Horseball-a: joan-etorri bakoitzerako honako hauek hartuko dira kontuan: zaldizko bat, zaldi bat eta laguntzaile/prestatzaile bat. Taldeen kasuan, honela kalkulatu da: jokalarien kopurua bider bi, gehi laguntzaile/prestatzaile bat.
- Mushing-a: joan-etorri bakoitzerako honako hauek hartuko dira kontuan: musher bat eta lera bat, eta beste unitate bat hartuko da kontuan parte hartzen duten lau txakurreko.
- Piraguismoa, arrauna eta bela: joan-etorri bakoitzerako, 4 arraunlariko (edo gutxiagoko), teknikari bat eta ibilgailu bat hartuko dira kontuan (hiru teknikari gehienez ere).
- Triatloia: joan-etorri bakoitzerako, 4 triatletako (edo gutxiagoko), teknikari bat eta ibilgailu bat hartuko dira kontuan (hiru teknikari gehienez ere).
- Taldeko kirolak:
 - Badminton: 8 parte-hartzaile.
 - Saskibaloia: 14 parte-hartzaile.
 - Eskubaloia: 18 parte-hartzaile.
 - Beisbola: 20 parte-hartzaile.
 - Futbola: 18 parte-hartzaile.
 - Areto futbola: 14 parte-hartzaile.
 - Patin-hockeya: 12 parte-hartzaile.
 - Izotz-hockeya: 15 parte-hartzaile.
 - Pilota (zesta punta): 4 parte-hartzaile.
 - Pilota (erreminta): 6 parte-hartzaile.
 - Esku pilota: 5 parte-hartzaile.
 - Errugbia: 24 parte-hartzaile.
 - Mahai-tenisa: 4 parte-hartzaile.
 - Boleibola: 13 parte-hartzaile.
 - Waterpolo: 15 parte-hartzaile.

c) Garraio mota.

Mugitu behar direnen kopurua 12 artekoa denean, garraiorako autoa erabiliko da. 12 baino gehiago direnean, berriz, autobusa kontatuko da.

Salbuespenez, joan-etorriak autoan egitea onartuko da lehiaketarako ezinbesteko kirol materiala eraman beharra duten kirol modalitateetako partaideen kasuan (piraguak, bizikletak, motorrak...).

2.–Puntuazioak.

Eskaera bakoitzari puntu kopuru jakin bat dagokio (ondotik adierazten den moduan).

A) Mantenuaren puntuazioa.

Bazkari edo afari bakoitzeko 2.000 puntu emanen dira.

Pertsona bakoitzaren mantenu kopurua kalkulatzeko, kontuan hartuko dira joan-etorrien distantziak, honela:

- Laburrak: lehiaketa egunen kopurua bider 2, ken 1.
- Ertainak: lehiaketa egunen kopurua bider 2, gehi 1.
- Luzeak: lehiaketa egunen kopurua bider 2, gehi 3.

Mantenuen guztirako puntuazioa kalkulatzeko, eragiketa hau eginen da: pertsona bakoitzaren mantenu kopurua bider kalkulaten diren parte-hartzaileen kopurua, 1.b atalaren arabera.

–Ostatu-gauen puntuazioa.

Ostatu-gau bakoitzeko (gosaria barne), 6.000 puntu emanen dira.

Pertsona bakoitzaren ostatu-gauen kopurua kalkulatzeko, kontuan hartuko dira joan-etorrien distantziak, honela:

- Laburrak: lehiaketa egunen kopurua ken 1.
- Ertainak: lehiaketa egunen kopurua.
- Luzeak: lehiaketa egunen kopurua gehi 1.

Ostatu-gauen guztirako puntuazioa kalkulatzeko, eragiketa hau eginen da: pertsona bakoitzaren ostatu-gauen kopurua bider kalkulaten diren parte-hartzaileen kopurua, 1.b atalaren arabera.

B) Joan-etorrien puntuak.

Joan-etorrien gastuen kalkuluan, klubaren egoitzaren herritik lehiaketa egiten den herrirainoko joana eta itzulia hartuko dira kontuan. Honela kalkulatu da joan-etorri bakoitzaren puntu kopurua:

–Autobusetan egindako joan-etorriak: puntu kopuru osoa = kilometro kopurua bider 146, gehi 9.000 puntu autobusa gelditzen den egun bakoitzeko. Prozedura hori 12 lagunetik gorako bidaietan aplikatuko da.

–Auto partikularretan/trenetan egindako joan-etorriak: puntu kopuru osoa = autoen kopurua bider egindako kilometroak eta bider 29, auto bakoitzeko 4 parte-hartzaile izanik. Prozedura hori 12 lagun arteko bidaietan aplikatuko da. Joan-etorria trenez egiten bada, automobilerako joan-etorriaren formula bera erabiliko da.

–Hegazkinez egindako joan-etorriak: Kanarietako joan-etorrietarako, Iruña-Kanariak hegazkineko bidaiak hartuko da kontuan, eta 45.000 puntu emanen dira pertsona bakoitzeko. Balearretara joateko eta penintsulan barna hegazkinez bidaiatzeko, 30.000 puntu emanen dira pertsona bakoitzeko.

3.–Emanen diren dirulaguntzak.

Dirulaguntza kalkulatzeko, mantenuaren, ostatu-gauaren eta joan-etorrien puntuazioa batuko da, eta gero, emaitza zuzenketa-indizearekin eta puntuaren balioarekin biderkatuko da. Hau da, $[(A+B+C) \times E \times VP]$. Argigarriak:

–A = mantenuaren puntuak.

–B = ostatu-gauen puntuak.

–C = joan-etorrien puntuak.

–VP = puntuaren balioa: 0,002093265757.

–E = lehiaketaren maila-kategoria bakoitzaren zuzenketa-indizea.

• E = 2.

- Espainiako lehen mailako lehiaketa kategorian absolutuan, gazteen ohorezko mailan eta Kirolaren Kontseilu Nagusiak antolatzen dituen eskola-umeentzako Espainiako txapelketetan.

• E = 1,60.

- Kategorian absolutuko lehiaketa nazionalaren bigarren maila.

• E = 1,40.

- Kategorian absolutuko lehiaketa nazionalaren hirugarren maila.

• E = 1,20.

- Lehiaketa nazionalen beste maila batzuk, edo autonomia erkidegoen arteko ligak, kategorian absolutuko lehiaketa nazionalak sailkatzeko balio dutenak, eta Espainiako txapelketetako beste final edo liga batzuk, azpiko kategorietan.

• E = 1.

- Finalen aurreko sektore faseak azpiko kategorietako txapelketetan, eta autonomia erkidegoen arteko edo Nafarroarekin mugakide diren autonomia erkidegoetako beste liga edo lehiaketa batzuk, betiere Espainiako kasuan kasuko federazioaren edo autonomia erkidego horien egutegi ofizialean badaude.

Gainera, emakumeentzat bakarrik diren jardueretan dirulaguntzaren zenbatekoa % 10 handiagotuko da.

Herrikiroren kasuan ere % 10 gehituko zaio moduluen kalkuluan emandako zenbatekoari.

3. ERANSKINA

Nazioarteko lehiaketarako dirulaguntza kalkulatzeko metodoa

Aplikatzeko irizpideak.

Kontuan harturik deialdi honen 1. eranskinen 3. oinarri arautzailean deskribatutakoa, hau da, parte hartu den nazioarteko lehiaketa diruz lagungarrien sailkapena, eranskin honetako irizpideen arabera kalkulatu da dirulaguntzaren zenbatekoa, dagokion eskaera aurkeztu eta gero.

Oro har, eskaera bakoitzean banaka ebaluatuko dira hartan zerrendatutako kirol lehiaketak, Nafarroatik atera beharra eskatu dutenak.

Kasu guztietan, diruz lagundu beharreko nazioarteko lehiaketak kategorian absolutukoak izanen dira, eta goi mailako kirolarien zerrendan agertzen diren kirolarientzat.

Honako hauek ez dute dirulaguntzarik jasoko:

a) Nafarroako Kirolaren Institutuaren beste deialdi batzuetan jasota dauden lehiaketak.

b) Nazioarteko lehiaketak, Nafarroako edo Espainiako selekzio batean parte hartuz.

c) Adin-kategorien araberrako lehiaketak: gazteena, junior...

d) "Puntuak emate hutseko" nazioarteko lehiaketak, "sailkapen lehiaketak" izan ezean.

Lehiaketen mailak:

a) 1. mailakotzat hartuko da Munduko edo Europako Txapelketa batean parte hartzea; edo Munduko edo Europako Kopa batean, edo

Europako lehiaketa batean, Espainiako liga edo kopa txapelketetako sailkapenaren bidez, betiere modalitate olinpikoak badira.

b) 2. mailakotzat hartuko da Munduko edo Europako Txapelketa batean parte hartzea; edo Munduko edo Europako Kopa batean, betiere modalitate olinpikoak ez badira.

c) 3. mailakotzat hartuko da Munduko edo Europako Txapelketa baterako sailkatzeko lehiaketa batean parte hartzea; edo Munduko edo Europako Kopa baterako, betiere modalitate olinpikoak badira. Eta lehiaketak "faseka" egiten dituztenak.

d) 4. mailakotzat hartuko da Munduko edo Europako Txapelketa baterako sailkatzeko lehiaketa batean parte hartzea; edo Munduko edo Europako Kopa baterako, betiere modalitate olinpikoak ez badira. Eta lehiaketak "faseka" egiten dituztenak.

"Puntuak emate hutseko" lehiaketak ez dira "sailkapen lehiaketa"ren parekoak.

Dirulaguntzaren kalkulua:

Ordaindu beharreko dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartuko da, lehenik, dagokion koefizientea, segun eta diruz lagunduko den jarduera zer lehiaketa mailatakoa den. Honela:

–Lehiaketako 1. maila = 1,00.

–Lehiaketako 2. maila = 0,70.

–Lehiaketako 3. maila = 0,50.

–Lehiaketako 4. maila = 0,30.

Gehienez ere dirulaguntza hauek emanen dira:

a) Banaka parte hartzeko kiroletan: 200 euro bider kirolari kopurua, bider lehiaketa egunak eta bider egoki den maila. Gehieneko zenbatekoa: 1.000 euro lehiaketa/joan-etorri eta kirolari bakoitzeko.

Kirol egokituei dagokienez, kontuan hartuko dira lehiaketan parte hartzeko behar diren langile laguntzaileak.

b) Taldekako kiroletan: 200 euro bider kirolari kopurua, bider lehiaketa egunak eta bider egoki den maila. Gehieneko zenbatekoa: 3.000 euro lehiaketa/joan-etorri eta kirolari bakoitzeko; edo 4.000 euro, gutxienez 15 kirolarik parte hartzen badute.

Kirolariak edo taldeak lehiaketako zenbat egunetan parte hartu duen zehazteko, kontuan hartuko da aktetan edo lehiaketako emaitzetan azaltzen dena.

Hala ere, azkenean ordaindu beharreko kopuruak ezin du egindako eta frogatutako gastua gainditu, bakarrik inskripzio, joan-etorri eta ostatu eta mantenuari dagokienez.

F2003332

1.7. BESTELAKOAK

67/2020 EBAZPENA, martxoaren 6koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitatean sartzeko Batxilergoko ebaluazioa egiteko jarraibideak 2019-2020 ikasturterako.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak (Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren bidez aldatuak) 36 bis artikuluan aurreikusten du banakako ebaluazio bat egitea Batxilergoko etapa bukatutakoan.

310/2016 Errege Dekretuaren 2. artikulua ezartzen du Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak zehaztuko dituela proben ezaugarriak, diseinua eta edukia; eta 3. artikulua ezartzen du hezkuntza Administrazioei dagokiela probak gauzatzea.

Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren ezarpen egutegia zabalteko presazko neurri buruzko abenduaren 9ko 5/2016 Errege Lege Dekretuaren 1. artikulua egindako aldaketen ondorioz, hari eta Hezkuntzarako Estatu Itun sozial eta politikotik ateratzen den araudiak indarra hartu arte, unibertsitateko ikasketak hasi nahi dituzten ikasleei soilik egiten zaie Batxilergoko ebaluazioa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 36 bis artikulua arautzen duena.

Presidentetzako, Gorteekiko Harremanetako eta Memoria Demokratikoko Ministerioak, otsailaren 17ko PCM/139/2019 Aginduaren bidez, zehaztu ditu unibertsitatean sartzeko Batxilergoko ebaluazioaren ezaugarriak, diseinua eta edukia, bai eta probak egiteko gehieneko epeak eta lortutako kalifikazioak berrikusteko prozedurak ebaztekoak ere, 2019-2020 ikasturterako.

Bestalde, ekainaren 6ko 412/2014 Errege Dekretuak (horren bidez ezarri zen unibertsitateko graduiko irakaskuntza ofizialetan onartzeko

prozeduren oinarriko araudia), 7. artikuluan, ezartzen du unibertsitate publikoek ezarriko dituzten balorazio irizpideak, ikaspostuak esleitzeko lehenetsun ordena ezartzeko aplikatuko diren arauak eta, behar denean, onartzeko prozedurak.

Horregatik guztiagatik, bidezkoa da zehaztea, Nafarroako Foru Komunitateko, Batxilergoko ebaluazio probak 2019-2020 ikasturtean izanen dituen alderdiak, graduiko unibertsitate ikasketa ofizialetan sartzeko, horrela aipaturiko araudian ezarritakoa osatu eta betetzearen.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.1.d) artikulua ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitatean sartzeko Batxilergoko ebaluazioa egiteko jarraibideak onestea 2019-2020 ikasturterako. Ebazpen honen eranskinean zehazten dira.

2. Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahalgo da, Hezkuntzako kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

3. Ebazpen hau eta eranskina igortzea, behar diren ondorioak izan ditzaten, Lanbide Heziketaren Zuzendaritza Nagusira, Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzura, Hezkuntzako Ikuskeraren Zerbitzura, Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegora eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko Unibertsitateko Zuzendaritza Nagusira.

4. Ebazpen hau eta eranskina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko martxoaren 6an.–Hezkuntzako zuzendari nagusia, Gil Sevillano González.

ERANSKINA

Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitatean sartzeko Batxilergoko ebaluazioa egiteko jarraibideak 2019-2020 ikasturterako

1.–Xedapen orokorrak.

1. Jarraibide hauen helburua da unibertsitatean sartzeari begira 2019-2020 ikasturtean egiten den Batxilergoko ebaluazio probaren alderdiak zehaztea, otsailaren 17ko PCM/139/2020 Aginduan ezarritakoaren arabera.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoan egiten den probarako aplikatuko dira.

3. Ebaluazioaren xedea da ikasleen heldutasun akademikoa eta unibertsitateko graduiko ikasketetan ongi segitzeko duten gaitasuna baloratzeko, eta ikasketa horietarako onarpen eskaerak ordenatzea, eskainitako ikaspostuak esleitzeko.

4. Segurtatuko da aukera berdintasuna izanen dela, diskriminaziorik ez dela izanen eta hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleek irisgarritasun unibertsala izanen dutela.

2.–Batxilergoko ebaluazio proba, unibertsitatean sartzeko.

2.1.–Probaren egitura.

5. Batxilergoko bigarren mailako ikasgaien curriculumera egokitu behar da proba. Hain zuzen, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoko irakaskuntzen curriculumak ezartzen diren apirilaren 22ko 25/2015 Foru Dekretuan arautu da curriculum hori.

6. Proba bi fasetan egituratuta dago: nahitaezkoa eta borondatezkoa. Nahitaezko fasea Batxilergoko 2. mailako enborreko lau irakasgai orokorreko buruzkoa izanen da. Borondatezko fasea edozein modalitatetako aukerako enborreko irakasgai buruzkoa izanen da. Fase horretan, halaber, modalitateko enborreko irakasgai orokorren eta atzerriko hizkuntza baten azterketa egin dezakete ikasleek. Baina ezin dira izan deialdi bereko nahitaezko faseko inskripziokoak. Fase horretan, nota hobetu nahi duten ikasleak aurkez daitezke.

Unibertsitateek, onarpen prozeduretan, kontuan har dezakete borondatezko faseko irakasgai bakoitzean lortutako kalifikazioa.

7. Aipaturiko otsailaren 17ko PCM/139/2020 Aginduaren 3. artikulua arekin bat, Nafarroako Foru Komunitatean, nahitaezko fasearen barnean, bosgarren ariketa bat ezarri da, Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaiaren curriculumari lotua, Batxilergoko 2. maila "D" edo "A" hizkuntza ereduetan egin duten ikasleentzat, irakasgai horretatik salbuetsita ez badaude.

8. Azterketako irakasgai bakoitzak bi aukera izanen ditu, eta ikasleek horietariko bat aukeratu beharko du.

9. Ikasleek, oro har, beren hizkuntza ereduari dagokion hizkuntzan egiten dute proba. Dena den, aldatu ahal izanen dute, eta aldaketak inskribaturiko irakasgai guztiak ukituko ditu, honako hauek izan ezik: Gaztelania eta Literatura II, Euskal Hizkuntza eta Literatura II eta Atzerriko Hizkuntza II.

2.2.–Sarrera probarako izena ematea.

10. Hezkuntza Departamentuak eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe eta institutuek Batxilergoko bigarren mailan matrikulatuta dauden ikasle-en datuak bidaliko dizkiote Nafarroako Unibertsitate Publikoari, horrek adierazitako epean.

11. Horren ondoren, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak ezarritako epean, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe eta institutuek ikasle horien zerrenda ziurtatua aurkeztuko dute, eta dokumentazio ofizialean ageri den Batxilergoko batez besteko nota adieraziko.

12. Ikasleek unibertsitatean sartzeko Batxilergoko ebaluazio probarako izena emanen dute ebaluaziora aurkezteko aukera ematen dieten ikasketak bukatu dituzten ikastetxearen bitartez. Nafarroako Unibertsitate Publikoak ezarritako baliabide elektronikoak erabiliz emanen da izena. Ikasleek Batxilergoko ikasketak Nafarroako ikastetxe batean bukatu ez dituztenean, zuzenean Nafarroako Unibertsitate Publikoan emanen dute izena.

13. Nahitaezko faserako, ikasleak izena emateko eskabidean adieraziko ditu Batxilergoko 2. mailan izan dituen irakasgaiak, bai eta atzerriko hizkuntzako ariketa zein hizkuntzatan egiten duen ere (alemana, frantsesa edo ingelesa).

14. Borondatezko faseko azterketarako, ikasleak izena emateko eskaeran gehienez ere hiru irakasgai paratzen ahalko ditu, irakasgai izan dituenak nahiz izan ez dituenak, Batxilergoko 2. mailako edozein modalitateko aukerako enborreko irakasgaien, beste modalitateetako enborreko irakasgai orokorren eta bigarren atzerriko hizkuntza baten artean hautaturik. Fase honetan hautatzen diren modalitateko enborreko irakasgai orokorrak eta atzerriko hizkuntza ezin dira bat etorri deialdi berean nahitaezko fasearen izen-ematean adierazitakoekin. Nafarroako Unibertsitate Publikoak ordutegiak prestatuko ditu ikasleak fase honetan gutxienez bi irakasgaien azterketa egin ahal izatea segurtatzeko moduan.

2.3.–Kalifikazioak.

15. Nahitaezko faseko ariketa bakoitza 0tik 10era bitartean kalifikatuko da, bi dezimalekin. Fase honetako nota aterako da ariketa guztien kalifikazioen batez besteko aritmetikoa eginez, hiru dezimalekin, milarenean biribildua. Nahitaezko fasea gainditzeak balio mugagabea izanen du.

16. Borondatezko faseko irakasgai bakoitza 0tik 10era bitartean kalifikatuko da, bi dezimalekin. Irakasgai bat gaindituztat emanen da 5 puntu edo gehiago lortzen direnean. Borondatezko faseko irakasgai bakoitzaren kalifikazioa bi ikasturteetan izanen da balioduna, gainditzen denetik aurrera, unibertsitatean sartu ahal izateko.

2.4.–Unibertsitatean sartzeko Batxilergoko ebaluazioaren nota eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan onartzeko nota.

17. Unibertsitatean sartzeko Batxilergoko ebaluazioaren kalifikazioa honela aterako da: Batxilergoko batez besteko notaren % 60ren eta nahitaezko faseko kalifikazioaren % 40ren arteko batez besteko ponderatua eginez. 0tik 10era bitarte adieraziko da, hiru dezimalekin, milarenean biribilduta. Unibertsitatean sartzeko Batxilergoko ebaluazioa gaindituztat jotzeko, ponderazio horren emaitzak 5 puntuko edo hortik gorakoa izan behar du, baldin eta 4ko nota eskuratu bazen gutxienez nahitaezko fasean.

18. Unibertsitatean sartzeko Batxilergoko ebaluazioa gainditurik, ikaslea hurrengo deialdietan aurkezten ahalko da kalifikazioa hobetzeko borondatezko faseko edozein irakasgaitan eta/edo nahitaezko faseko guztietan, eta hautatzen ahalko ditu bere ikasketetan izan ez dituen modalitateko enborreko irakasgai orokor bat eta atzerriko hizkuntza bat. Azken deialdian lortutako kalifikazioa hartuko da aintzat, baldin eta aurrekoan baino puntu gehiago lortu badira.

19. Ekainaren 6ko 412/2014 Errege Dekretuaren (horren bidez ezarri zen unibertsitateko graduako irakaskuntza ofizialetan onartzeko prozeduren oinarriko araudia) arabera, Nafarroako Unibertsitate Publikoak jendaurrean jarriko ditu graduako irakaskuntza ofizialetan ikasleak onartzeko prozedurak, ikaspostuak esleitu ahal izateko, helbide honetan:

<http://www.unavarra.es/estudios/sarbidea-eta-matrikula/graduak/nor-sar-daiteke?languageld=100001>

2.5.–Proba egiteko egunak.

20. Probak egiteko egunak ekainaren 2, 3 eta 9a izanen dira deialdi arruntean, eta ekainaren 24, 25 eta 26a deialdi berezian.

2.6.–Batxilergoko ebaluazio ariketetan lortutako kalifikazioak berrikustea.

21. Ikasleek eta, adingabeak badira, baita gurasoek edo legezko tutoreek ere, probaren Antolaketa Batzordeari eskatzen ahalko diote ebaluazioko ariketa batean edo batzuetan lortutako kalifikazioa berrikustea.

Lortutako kalifikazioak berrikusteko eskaera hiru egun balioduneko epean aurkeztuko da, emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.

22. Antolaketa Batzordeak berrikusi nahi diren ariketen bigarren zuzenketa egiteko irakasleak izendatuko ditu, honako honen arabera:

a) Bigarren zuzenketa egin baino lehen, ariketak berrikusi egiten dira, puntu guztiak ebaluatu direla ziurtatzeko eta azken kalifikazioaren kalkuluan akatsik ez dagoela egiaztatzeko. Akatsik edo aipatu gaberik aurkitzen bada, hasierako kalifikazioa zuzendu egiten da.

b) Ariketak berriz zuzenduko dira. Bi puntutik beherako alderik baldin badago lehenbiziko kalifikazioaren (behar denean, akatsa zuzenduta) eta bigarren zuzenketaren artean, bien batez besteko aritmetikoa izanen da azken kalifikazioa. Bi kalifikazioen artean bi puntuko aldea edo handiagoa baldin badago, hirugarren zuzenketa egiten da ofizioz, eta hiruren batez besteko aritmetikoa izanen da azken kalifikazioa.

c) Behin azterketa bukatutik, proba antolatzen duen batzordeak behin betiko kalifikazioak emanen ditu, eta, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren errektoarearen ebazpenaren bidez, kalifikazioak berrikusteko prozedura itxiko da. Ebazpen horrek bide administratiboa amaitzen du, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren web-orrian argitaratzeak banan-banako jakinarazpena ordeztu eta ondorio berak sortuko ditu.

23. Behin berrikuspen prozesu osoa buruturik, ikasleek eta, adingabeak badira, baita gurasoek edo legezko tutoreek ere, ariketa berrikusiak ikusteko eskubidea izanen dute, berrikuspenaren ebazpena jakinarazi eta hamar eguneko epean.

2.7.–Batxilergoko ebaluazio proba antolatuko duen batzordea.

24. Hezkuntzako kontseilariaren urriaren 9ko 164/2009 Foru Agindua 8. artikulutik 15.era bitartekoetan oro har ezarritako xedapenei jarraituko zaie honako hauek arautzeko, betiere oinarriko araudiaren kontrakoak ez badira: proba antolatuko duen batzordea, bere eginkizunak eta kideak, kalifikazio epaimahaien funtzionamendua eta ebaluazioa antolatzeko beharrezkoak diren koordinazio jarduketak.

25. Nahitaezko eta borondatezko faseetako ariketen proposamenak elkarrekin prestatuko dituzte irakasgaiak aholkulariak eta koordinatzaileak.

3.–Unibertsitatean sartzeko probak aurreko urteetan gainditu zituzten ikasleak.

26. Unibertsitatean sartzeko proba aurreko urteetan gainditu zuten ikasleek aukera izanen dute unibertsitatean sartzeko Batxilergoko ebaluaziora aurkezteko, horrela kalifikazioa hobetzeko borondatezko faseko edozein irakasgaitan eta/edo nahitaezko faseko guztietan. Azken deialdian lortutako kalifikazioa hartuko da aintzat, baldin eta aurrekoan baino puntu gehiago lortu badira.

4.–Batxilergoko ebaluazio proba, unibertsitatean beste titulazio batzuen bitartez sartzeko.

27. Borondatezko faseko edozein irakasgaitan aurkezten ahalko dira, halaber, onarpen nota hobetzeko, titulu hauetakoren bat dutenak: Lanbide Heziketako goi mailako teknikari titulu ofiziala, Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikariarena edo goi mailako kirol teknikariarena, edo ondorio akademikoetarako baliokidetzat deklaraturiko tituluak. Beraien ikasketen batez besteko nota izanen da nahitaezko faseko nota zehazteko erabiliko dena.

28. Atzerriko sistemetatik heldu diren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan sartu nahi duten ikasleak unibertsitate honek horretarako ezarria duen onarpen prozeduraren arabera onartzeko dira.

F2003913

JENDAURREKO INFORMAZIOA, nodoko solaskide bakarra (Muru Artederreta 400 kV) izendatzeari buruzkoa.

Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiak eskaera hauek jendaurrean jartzen ditu, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 83. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako:

–Espedientearen kodea: SEMSI-IUN_Muruarte_400kV.

–Gaia: nodoko solaskide bakarra izendatzea Muru Artederreta 400 kV posizioan.

–Jasotako eskaerak: Solaria Promoción y Desarrollo Fotovoltaico SLU eta Green Capital Power SLU.

–Erreferentziako araudia: Energia elektrikoa energia-iturri berriztagarrien, kogenerazioaren eta hondakinen bidez sortzeko jarduera arautzen duen ekainaren 6ko 413/2014 Errege Dekretuaren XV. eranskina eta

Trantsizio energetikorako eta kontsumitzaileen babeserako premiazko neurriak arautzen dituen urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege dekretua.

Espedientea jendaurrean egonen da Industria Antolamenduaren, Azpiegitura Energetikoen eta Meatzeen Zerbitzuan (Tomás Caballero parkea, 1. zk., 5. solairua, 31005, Iruña), interesdunek azter dezaten eta, bidezko bada, idatziz egin ditzaten egoki iruditzen zaizkien alegazioak, iradokizunak

edo oharrak, 20 egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Iruñean, 2020ko martxoaren 6an.–Industria Antolamenduaren, Azpiegitura Energetikoen eta Meatzeen Zerbitzuko zuzendaria, Laura Larraya Irigoyen.

F2003668

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

DONEZTEBE

Doneztebeko hirigune historikoko Hiri Jarduketarako Plan Bereziaren aldaketa (erabiltzeko baldintzak; 17., 29. eta 41. artikulua). Hasierako onespena

Doneztebeko Udalak, 2020ko martxoaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen hasiera batez onestea aldaketa Doneztebeko Hirigune Historikoko Hiri Jarduketarako Plan Bereziaren (erabiltzeko baldintzak; 17., 29. eta 41. artikulua), Juan Manuel Juanenak eta Arantxa Ezcurrak sustatuta.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 72. artikuluan xedatuari jarraituz, espedientearen jendaurrean egonen da hilabetez, iragarki hau argitaratzen denetik hasita, aztertu eta bidezko alegazioak aurkezteko.

Donezteben, 2020ko martxoaren 10ean.–Alkatea, Santiago Uterga Labiano.

L2003972

IZARBEIBARKO ZERBITZU ADMINISTRATIBOEN MANKOMUNITATEA

2020ko lan egutegiaren onespena

Ikusirik Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusiaren maiatzaren 10eko 177/2019 Ebazpena, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren 2020ko jaiegunen egutegi ofiziala.

Ikusirik 250/2019 Ebazpena, azaroaren 22koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez zehazten baitira ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren 2020ko jaiegunak, Nafarroako Foru Komunitatearen esparrurako.

Ikusirik 339/2020 Ebazpena, abenduaren 16koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baita herrietako 2020ko jaiegunak aldatzea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.h) artikulua ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

Lehenbizikoa.–Onestea Izarbeibarko Zerbitzu Administratiboaren Mankomunitatearen zerbitzuko langileek 2020an izanen duten aste barreneko jaiegunen egutegia, jarraian ematen den bezala:

- Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna.
- Urtarrilaren 6a: Errege eguna.
- Martxoaren 19a: San Jose.
- Martxoaren 20a: San Jose eguneko zubia.
- Apirilaren 9a: Ostegun Santua.
- Apirilaren 10a: Ostiral Santua.

–Apirilaren 13a: Pazko astelehena.

–Maiatzaren 1a: Langileen eguna.

–Abuztuaren 15a: Andre Mariaren Jasokunde.

–Abuztuaren 28a: Obanosko herriko jaien hasiera eguna, jaieguna izanik 12:00etatik aurrera.

–Abuztuaren 31: Lehen laneguna Obanosko herriko jaiaren (abuztuaren 29a) ondok.

–Irailaren 1a eta 2a: Obanosko herriko jaiak.

–Urriaren 12a: Espainiako Jai Nazionala.

–Abenduaren 3a: San Frantzisko Xabierkoa.

–Abenduaren 4a: San Frantzisko Xabierkoaren eguneko zubia.

–Abenduaren 7a: Konstituzio egunaren biharamuna.

–Abenduaren 8a: Andre Maria Sortzez Garbia.

–Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

Bigarrena.–Izarbeibarko Zerbitzu Administratiboaren Mankomunitatearen lanorduen urteko kopurua 1.592 da, abenduaren 27ko 624/1999 Foru Dekretuaren arabera, eta honela banatuko da:

Astelehenetik ostiralera, eguneroko lanaldia izanen da, oro har, 7 ordu eta 20 minutukoa. Nahitaez aritu beharko da 9:00etatik 14:30ak arte; gainerako denbora egiteko langileek malgutasuna izanen dute, hautara, 7:30etik 9:00ak arte eta 14:30etik 17:00ak arte.

Hirugarrena.–Langileen asistentzia kontrola presentzien kontrol sistema baten bidez egiten da. Hala egin beharko dute lanaldiaren hasieran eta amaieran, baita lanaldiaren barnean irteten eta itzultzen diren bakoitzean ere.

Bosgarrena.–Langileek lanaldiaren barnean gehienez hogeita hamar minutuko atsedendaldia izanen dute.

Bosgarrena.–Baliogabeak izanen dira, 2020. urtean epeak kontatzeari dagokionez, larunbat, igande eta jaiegun deklaratu guztiak eta ebazpen honen lehenbiziko xedapenean adierazitako jaiegunak, salbu eta martxoaren 20a, abuztuaren 31, irailaren 1a eta 2a, eta abenduaren 4a, horiek jaiegun izanen baitira.

Seigarrena.–Argitaratzea ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean, baita, ediktuen bidez, Izarbeibarko Zerbitzu Administratiboaren Mankomunitateko iragarki-taulan ere.

Zazpigarrena.–Batzar Nagusiari ebazpen honen berri ematea, egiten den hurrengo bilkura arruntean.

Ohartarazten da erabaki honen kontra errekurtsio hauetariko bat jartzen ahal dela:

1. Berraztertze errekurtsioa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera.
2. Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazten denetik aurrera.
3. Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegi edo Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Obanosen, 2020ko otsailaren 20an.–Mankomunitateko burua, María Aránzazu Hernández Lacalle.

L2003146